



**GAZAKO
SARRASKIA
GELDITU!**
KONPONBIDE POLITIKOA ORAIN!
PALESTINAREN ELKARTASUNA

“PALESTINAREKIN BAT - KONPROMISO BAT”

MANIFESTUA

...68.000 hildako, horietatik 20.000 inguru umeak; 170.000 zauritu baino gehiago; 14.000 desagertu inguru (1.200 osasun langile eta 250 kazetari inguru); 81 pertsona hil kartzeletan urriaren 7az geroztik; UNRWAKo 250 langile baino gehiago hilda; ia bi milioi desplazatu; lurraldea ia guztiz suntsituta; oinarrizko beharrizanak urratuta...

Nazio Batuen Erakundeak baieztatu bezala, Palestinan genozidioa eragiten ari da Israel, eta luzaz indarrean jarraitzeko arrisku handia dago. Ezin dugu egoera hori onartu, Palestina jasaten ari den genozidioa amaitu beharra dago. Israelen eta haren aliatuen partetik bere lurraldearen okupazioa eta eskubideen urraketa pairatzen ari da. Azken hilabeteetan modu izugarri bortitzean areagotu da, eta nazioarteko komunitatea eta legedia ez dira gai izan hori ekiditeko.

Momentu historiko honetan, asko dugu jokoan; ez soilik herri palestinarrek, bestelako mundua eraiki nahi dugun guztiok baizik. Nazioarteko komunitateak eta legediak porrot egin dute. Munduak autoritarismoranzko bidea hartu du, eta etorkizuna guztiz ziurgabea da. Horren aurrean, nazioarteko komunitateak arautzen duen legedia aldarrikatu behar dugu justizian sinesten dugunok, Palestinan gertatzen ari dena behingoz amaitu dadin, eta inoiz beste inon errepika ez dadin.

Euskal Herrian, bakearen eta elkartasunaren bandera altxatu dugu urte eta hilabete hauetan guztietan. Euskal jendartearen gehiengoa eta berau osatzen duen gehiengo politiko, sindikal eta soziala genozidioaren kontra dago, eta palestinar herriaren eskubideak errespetatzearen alde.

Orain, ordea, gehiengo sozial horrek hitzetatik ekintzetara pasatu behar du. Palestina babestera konprometitu behar gara. Hau da, gure esku dagoen hori guztia egiteko konpromisoak hartu behar ditugu.

Palestina babestea eta Israel isolatzea izan behar dira gure ekintzen iparrorratza. Inoiz baino gehiago, Palestinak elkartasuna sentitzen jarraitu behar du,

eta bere aldeko babes instituzional, diplomatiko eta ekonomikoa jasotzen. Era berean, Israelek inpunitatez jokatzeko eragotzi behar dugu, eta genozidioa eta okupazioa amaitu ditzan exijitu. Are gehiago, genozidioaren erantzuleak nazioarteko epaimahai batek epaituak izan behar dira, egindako sarraskiaren arduradun gisa.

Euskal Herrian hamaika eremutan erakuts daiteke Palestina babesteko eta Israel isolatzeko determinazioa. Dagoeneko hala gertatzen ari da, eta horren frogak dira azken hilabeteetan hainbat esparrutan hartutako askotariko konpromisoak, besteak beste, kulturean, sindikalgintzan, komunikabideen arloan, alde akademikoan, kirol munduan, instituzioetan eta osasun esparruan.

Norabide horretan, Gernika-Palestina Deialdi Herritarrak “*Palestinarekin Bat-Konpromiso Bat*” aldarria sustatzen jarraituko du. Euskal Herrian konpromisoak hartu, antolatu, gauzatu eta eredu gisa zabaltzeko, benetan sinesten baitugu eragileek eta jendarteak egin dezakegun horretan:

- Konpromisoa, Palestina babesteko eta elkartasun aktiboan urratsak egiteko (arloan ekonomikoa eta humanitarioa).
- Konpromisoa, Palestina babesteko, genozidekin harremanak eteteko, eta oro har, gure praktikan kode etikoa barnera dadin.
- Konpromisoa, nazioarteko legedia errespetatu eta aplikatu dadin eskatzeko eta, Gernikaren herritik, bakearen aldarria mundura zabaltzeko.

Jarrai dezagun konpromisoaren bidean, genozidioa desagerrarazteko ekarpena eginez, mundu justuagoa eta etorkizun itzaropentsua eraikitzen.

Donostia, 2025eko azaroaren 8an



**GAZAKO
SARRASKIA
GELDITU!**
KONPONDE POLITIKIA ORAIN!
PALESTINAREKIN ELKARTASUNA

“PALESTINAREKIN BAT – KONPROMISO BAT”

MANIFIESTO

...68.000 personas muertas, de ellas unas 20.000 niñas y niños; más de 170.000 heridas; alrededor de 14.000 desaparecidas (entre ellas, cerca de 1.200 personal sanitario y alrededor de 250 periodistas); 81 personas muertas en las cárceles desde el 7 de octubre; más de 250 miembros de la UNRWA asesinados; casi dos millones de personas desplazadas; el territorio prácticamente destruido; necesidades básicas vulneradas...

Tal y como ha confirmado la Organización de las Naciones Unidas, Israel está llevando a cabo un genocidio en Palestina, y existe un gran riesgo de que continúe a lo largo del tiempo. No podemos aceptar esta situación: es necesario poner fin al genocidio que sufre Palestina. Israel y sus aliados están sometiendo al pueblo palestino a la ocupación de su territorio y a la violación sistemática de sus derechos. En los últimos meses esta violencia se ha intensificado de forma extremadamente brutal, y la comunidad internacional y el derecho internacional no han sido capaces de impedirlo.

En este momento histórico tenemos mucho en juego; no solo el pueblo palestino, sino también todos los que deseamos construir un mundo diferente. La comunidad internacional y el derecho internacional han fracasado. El mundo ha tomado el camino del autoritarismo y el futuro es totalmente incierto. Ante ello, quienes creemos en la justicia debemos reivindicar el derecho internacional, un marco que rija las relaciones de la comunidad internacional, para que lo que está ocurriendo en Palestina termine de una vez por todas y no vuelva a repetirse en ningún otro lugar.

En Euskal Herria hemos levantado durante estos dos años la bandera de la paz y de la solidaridad. La mayoría de la sociedad vasca, así como la mayoría política, sindical y social que la compone, está en contra del genocidio y a favor del respeto de los derechos del pueblo palestino.

Ahora bien, esta mayoría social debe pasar de las palabras a los hechos. Debemos comprometernos a proteger a Palestina. Es decir, debemos asumir compromisos para hacer todo lo que esté en nuestras manos. Proteger a Palestina y aislar a Israel deben ser el norte que guíe nuestras acciones. Hoy más que nunca, Palestina debe seguir sintiendo la solidaridad vasca, y recibir apoyo institucional, diplomático y económico. Al mismo tiempo, debemos impedir que Israel actúe con impunidad, y exigir que ponga fin al genocidio y a la ocupación. Es más, los responsables del genocidio deben ser juzgados por un tribunal internacional, como culpables de las masacres cometidas.

En Euskal Herria se puede mostrar el compromiso de proteger a Palestina y de aislar a Israel en múltiples ámbitos. De hecho, ya lo estamos haciendo, como así lo demuestran los compromisos adoptados en los últimos meses en diferentes espacios: cultura, sindicalismo, medios de comunicación, académico, deporte, institucional y sanidad.

En esa dirección, la Iniciativa Ciudadana Gernika-Palestina seguirá promoviendo la declaración “Konpromiso bat, Palestinarekin bat”. En Euskal Herria debemos asumir, organizar, llevar a cabo y difundir compromisos que sirvan de ejemplo, porque creemos firmemente en lo que la sociedad y las organizaciones podemos hacer:

- **Compromiso** para proteger a Palestina y dar pasos en la solidaridad activa (en el ámbito económico y humanitario).
- **Compromiso** para proteger a Palestina, romper relaciones con los genocidas y, en general, incorporar un código ético en nuestras prácticas.
- **Compromiso** para exigir el respeto y la aplicación del derecho internacional y, desde el pueblo de Gernika, difundir al mundo la reivindicación de la paz.

Sigamos en el camino del compromiso, contribuyendo a erradicar el genocidio y a construir un mundo más justo y un futuro con esperanza.

Donostia, 8 de noviembre de 2025